# BIKORTXO GRANITOAREN ABENTURAK

Aiako Harrietan nago eta gure abenturak kontatuko dizkizuet . Sakontasun handian jaio arren, orain gainazalean gaude, lurbarneko indarrek gorantz bultzatu gaituzte eta.

Koartzozko bikorra naiz eta nire senideekin batera, Feldespato eta Mikekin batera, granito harria osatzen dut.

Hemendik paisaia ederra ikusten dugu, baina ez dakit noiz arte...

Hau oso polita da, baina meteoroek etengabe erasotzen digute. Euria ez bada, hotza edo beroa, eta zer esanik ez, atmosferako gas maltzur horietaz!

Mineral batzuek eraso hori ezin jasan eta desegiten dira. Ni bezalako mineralak oso erresistenteak gara, eta etsai horiek ezer gutxi eragiten digute.



Hau abentura izugarria da, ez dakit nora goazen, baina toki politetatik pasa gara; hasieran erreketatik, gero ibaietatik, eta orain... Diotenez, itsasoa da. Hemen bildu gara granitoan geunden koartzo asko. Korronte eta olatuek gutako batzuk eraman dituzte hondartzara.




## Zer ikasi duzue nitaz?

1. Zein izen du meteoroek harriari egindako erasoak?
2. Eta, nola diogu ibaiek harriak eta bikorrak leku batetik bestera eramateari?
3. Zein modutan bidaiatzen dute harri bikorrek?
4. Zergatik dira bikorrak gero eta txikiago eta borobilagoak?
5. Zein izen ematen diogu toki batean bikorrak pilatzeari?
6. Zeintzuk dira harri sedimentarioen ezaugarriak?
7. Zergatik esaten diogu hareharriari harri sedimentario detritikoa?